

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000000281

Xedea**2023-01-27(e)ko OSOKO BILKURA** deialdia.**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2019ko uztailaren 2ko Udal Osoko Bilkuran osoko bilkuren aldirotasuna finkatzea onartu zen. Aldirotasunaren inguruan, hain zuzen ere, hauxe onartu zen:

“... ”

LEHENENGOA: *Osoko Bilkuren aldirotasuna modu honetan finkatzea, lehentasunez zehaztutako egutegi eta ordutegiaren arabera:*

Bi hilerik behin, hilabeteko azken ostiraletan goizeko 8etan.

BIGARRENA: *2019. urterako lehentasunez erantsitako egutegia onartuko da eta urtean-urtean bozeramaileek adostuko dute egutegia. Dena den, alkateak justifikatutako arrazioen ondorioz (jai eguna delako, agenda arazoak daudelako, quoruma bermatzeko...) edo bozeramaileek gehiengoz erabakitzearen ondorioz eguna eta/edo ordua alda daiteke.*

... ”

Bigarrena: 2022ko azaroaren 22ko Bozeramaileen Batzarrean saioen 2023. urterako egutegia onartu zen eta horren arabera 2023ko urtarrilaren 27an ohiko Osoko Bilkura egongo da.

Argudioak

Bakarra: Alkateak OSOKO BILKURAKo deialdia egiteko eskumena dauka aipatutako artikuluz gain, legeria honen arabera:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.



Ebazpena

Goian aitaturakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dot:

LEHENENGOA: OSOKO BILKURA osatzen daben zinegotziak deitzea ohiko batzarrera.

BIGARRENA: Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diran zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen dan gai zerrendea onartzea. Ikusi 1. eranskina.

HIRUGARRENA: 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

LAUGARRENA: Jakinaraztea zinegotzietan asistentzia nahitaezkoa dala, bertaratzea galarazten dauen arrazoi justifikaturik egon ezean.

BOSGARRENA: Jakinaraztea gaurtik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoa edo Idazkaritzan eskura dagozala gai zerrendako gaiakaz zerikusia daukien espedienteak.



BATZAR DEIA

Deitutako organoa:	OSOKO BILKURA
Batzarra:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Eguna:	2023-01-27 (Ostirala)
Ordua:	08:30
Lekua:	Gizarte eta Kultura Etxeko Gaztelekuko gela
2. deialdia:	2023/01/31 (Asteartea) 08:30



GAI ZERRENDEA

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2022-12-19 OB (08)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Almike kalea 2an kokatutako Olalde etxearen ingurua berroneratzeko Hiri Berrikuntzarako Plan Berezia behin betiko onartzea.
- 4.- Iñaki Latxagari urrezko domina ematea onartzea.
- 5.- 2023ko araudi plangintza onartzea.
- 6.- 2023.urterako %2,5eko soldata igoera onartzea.
7. - 2022ko 4227-4881 zenbakidun eta 2023ko 1-90 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 8.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2022ko azaroak 22 eta 29, abenduak 13 eta 20, eta 2023ko urtarrilak 10eko erabakiak.
9. - Eskariak eta itaunak.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B915A00A1F0C3T4S4W5

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA -
24/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/01/2023
14:41:22

: 2023000000281
Data: 24/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

